Mobilizazioaren indarrak fitxa mugitzera behartu du Osakidetza, baina proposamenak oraindik ez dira nahikoak

- *SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek balioetsi dute urriaren 30eko greban profesionalek emandako erantzun irmoak Mahai Sektorialean posizioak mugitzen hastera behartu duela Osakidetzako zuzendaritza*
- *Hala ere, orain arte aurkeztutako proposamenak ez dira nahikoak euskal osasun publikoaren lan-baldintzen narriadurari eta benetako beharrei erantzuteko. Beraz, mobilizazioekin jarraituko dute*

Gasteizen, 2026ko azaroaren 13an– Ostiral honetan, azaroak 13, Mahai Sektorialeko bileran, **SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT** sindikatuek berriro eskatu dituzte profesionalen beharren mailan egongo diren neurriak, **17 urte baino gehiago beren lan-baldintzak osorik eguneratu gabe** egon ondoren. "Grebaren arrakastak erakutsi du langileek gure aldarrikapenak babesten dituztela. Osakidetzak mezu hori kontuan hartu eta bere proposamenak hobetu behar ditu. **Ezin da negoziazioan aurrera egin planteamendu eskasekin eta existitzen ez diren gai batzuekin ",** adierazi dute bost sindikatuek.

Urriaren 30ean egindako greba-egunari profesionalek emandako erantzun jendetsuak argi utzi du Osakidetzako langileek benetako hobekuntzak eskatzen dituztela beren lan-baldintzetan. Mobilizazio horrek balio behar du Osasun Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritzak eta Osasun Sailak beren aldarrikapenak entzun ditzaten eta negoziazioari bira eman diezaioten, proposamen zehatzekin eta konpromisoekin, Lan Baldintzen Akordio berri baterantz aurrera egiteko.

Ildo horretan, mahai sektorialean, sindikatuek salatu dute Eusko Jaurlaritzak **2027rako Osakidetzako langileentzat proposatu duen aurrekontu-partida** % 7,1 handituko dela. Sindikatuek salatu dute **komunikabideen bidez jakin zutela informazio hori, foro horretan memoria ekonomikorik aurkeztu gabe**. Era berean, ez da erakutsi kapitulu banaketa, ez eta inpaktu-txostenik ere, partida horren benetako irismena ezagutzeko.

Gainera, uste dute iragarritako igoerak ez dituela berez bermatzen lanbide-kategoria guztietarako eskatzen dituzten hobekuntzak. Proposamenek oraindik ez dituzte funtsezko gaiak jorratu, hala nola **erosteko ahalmenaren galera, 2010etik % 20tik gorakoa**; aldi baterako edo bitarteko egoeran jarraitzen duten 8.000 lanpostu baino gehiago egonkortzea; aldi baterako enplegua egonkortzea edo kanpora ateratako gastua itzultzea. Osakidetzak urtean 400 milioi euro baino gehiago bideratzen ditu horretara.

Era berean, ez da neurri zehatzik planteatu euskal osasun publikoaren antolaketa-eredua eraldatzeko, pribatizazioak geldiarazteko edo Lehen Mailako Arreta indartzeko. **"Aurrekontu-partida bat iragartzea ez da nahikoa. Jakin behar dugu nola banatuko diren baliabide horiek, eta zer finantzaketa osagarri erabiliko den eskatzen ditugun lan-**

baldintzak hobetzeko. Akordio berri batek konpromiso ekonomiko zehatzak eta kategoria guztietarako bermeak eskatzen ditu ", ohartarazi dute SATSEk, ELAk, LABek, CCOOk eta UGTk.

Kategoria guztietako lan-baldintzak hobetuko dituen akordioa

Bileran, halaber, langileen administrazio-egoerarekin, laneko segurtasun eta osasunarekin eta prestakuntzarekin lotutako gaiak jorratu dira. Lanaldiari, kontziliazioari, baimenei, berdintasunari eta euskarari buruzko ekarpen batzuk jaso badira ere, **sindikatuek planteatutako funtsezko beste aldarrikapen batzuk egiteke daude oraindik.** Gehiengo sindikalak **Lan Baldintzen Akordio berri bat eskatzen du 2027-2030 aldirako, erosteko ahalmena bermatzeko, profesionalen arteko desberdintasunak zuzentzeko, kategoria guztietako lan-baldintzak hobetzeko, plantilla nahikoak bermatzeko eta osasun publikoa indartzeko.**

Iragarritako partidak ez du zuzkidura gehigarririk zehazten funtsezko gaiak jorratzeko, hala nola lanaldia, kontziliazioa, soldata-arrakala edo euskara. "Aldarrikapenek langile guztiei eragiten diete, baita herritarrek jasotzen duten arretaren kalitateari ere. Akordio integral bat behar dugu, kategorien arteko diskriminaziorik gabe eta osasun publikoa benetan hobetzeko neurriekin", azpimarratu dute sindikatuek.

Mobilizazioak aurrera jarraituko du benetako aurrerapenak lortu arte

SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek **azaroaren 17rako** aurreikusitako mobilizazioei eutsiko diete. Halaber, abenduaren 2ko hurrengo mahai sektorialean aurrerapausorik ematen ez bada, a**benduaren 9rako Araban, 10erako Bizkaian, 11rako Gipuzkoan eta 14rako Osakidetza osoan** deitutako greba-egunei eutsiko dietela ohartarazi dute.

Langileek beren mobilizazioarekin erakutsi dute aldaketa eskatzen dutela eta beren eskubideak defendatzeko prest daudela. Sindikatuek langileei adierazi nahi diete mobilizazioa dela bidea, eta Osakidetza pausoak ematen hasi bada, plantilla mobilizatzen hasi delako dela. Orain, Osakidetzari eta Osasun Sailari dagokie haien proposamenak hobetzea eta akordio bat lortzeko behar diren baliabideak eta konpromisoak mahai gainean jartzea. **"Urriaren 30eko grebari langileek emandako babesa mezu argia da. Mobilizazioekin jarraituko dugu aurrerapen nahikorik ez dagoen bitartean. Gatazkaren konponbidea Eusko Jaurlaritzaren esku dago ", ondorioztatu dute SATSEk, ELAk, LABek, CCOOk eta UGTk.**